



«Ekainerako goi mailako mendietan izatea espero dut»

ATSEDENA ▶ K2 mendia igotzen oinetan jasandako izozketez errekuperatzen ari da etxean

GUSTURA ▶ Gailurrak «dudarik gabe» merezi zuela dio, ez da batere damutzen egindakoaz ▶ 23



Edurne Pasaban. I. ETXEBESTE

Jaiak azken egunera iritsi dira; haurrak izan ziren atzoko protagonistak

ALKIZA-BEDAIO-ZIZURKIL ▶ Amabirjinen omenezko jaiak atzo egun garrantzitsua izan zuten hiru herrietan eta haurrak izan ziren egunean zeharreko protagonistak. Gaur izango dute azken jai eguna. Argazkian, Bedaioko haur jolasak. JAIONE ASTIBIA ▶ 7

Miren Gonzalezen 'Puzzleak', Aranburun

Garatzen ari den tesia jarraitu du jaioterrian egiten duen lehen erakusketan ▶ 5



Miren Gonzalez. I. GARCIA

Extremadurako Kultur Astea hasi da mahai jokoekin La Jaran

Gaurtik aurrera, erakusketa zabalik ▶ 6



AINHUA
ILEAPAINDEGIA
BIHAR IREKIERA,
ZURE ILEAPAINDEGI BERRIA
BILLABONAN
Tel.: 943 69 34 21 • Mugi.: 629 349 624
Etxe-ondo auzoa 7 • BILLABONA





UZZURETIK ▶
RAMON OLASAGASTI

Denboraren gupil eroan

Arrakasta eta aintzaren olatu gainean ariko da arraunean gaur Astillero, Kontxako badian. Eta bien bitartean, beste astillero bat, La Naval, etorkizun makurreko putzu beltzean itotzean. Oraindik ere iristen dira euren aldarriak: «Lehen Euskalduna, orain La Naval...». Euskalduna ontziolaren lekuan ere, Euskalduna jauregia ageri da egun, haren herdoiletatik jasoa, gariak aldatzen doazen ikur. Azkar gainera, konturatzerako.

Donostiara itzulirik, gure begietatik harrigarria dirudi egungo hiriburua eta Tolosa paretsu zirela jakitea. Harrigarria 150 urte zenbateko aldea sor dezaketen. Aski da gizaldi bat herri bat hiri bihurtzeko. Urteak joan, urteak etorri, ordea, hainbat tolosarren artean oraindik ere somatzen da erresumnik Madrilgo gobernuaren laguntzari esker kendu ziotelako hiriburutza Tolosari. Eta harro oroitarazten dute, adibidez, Tolosan dagoela Gipuzkoako Artxibo Orokorra, 100 urte bete berri hau ere. «Oroitzapena, nortasuna eta gure iraganaren muina», gordetzen omen dira han.

Oroitzapena, ondarea eta iragana gordetzen dira Tolosako Zaharkinak erakusketan ere. Han ederki antzematzen da zein azkar igaro den gure bizimodua goldearen erritmotik traktorearen erritmorra. Urte oso gutxian egin dugu segapoto batetik beste klase bateko segapotora dagoen saltoa eta beldurra ematen du 100 urte barru gure ziber-bizimodua nolakoa izango ote den pentsatzeak. Pixkanaka, gu ari gara zaharkin bihurtzen, eta eguneroko tresna, jantzi, albiste eta abarrei ez diegu zahar bihurtzeko denborarik ematen. Atzo berria zena, gaur zaharra da, eta denborarik hartu ezinez gabilta berrikuntza guztietara egokitzeke. Eta egokitu ezean, jai dugu. Komeriak ditugu modara joateko, etengabeko albiste zurrunbiloan eguneroko egoteko, konektatuta egoteko... Eta kasu batzuetan, larritik ordaintzen da garai berrietara ez egokitze hori. Galdetu La Navaleko langileei.

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



EDURNE PASABAN ▶ MENDIZALEA

IRATXE ETXEBESTE

Zaragozako (Espainia) MAZ ospitalean ebakuntza egin zain dagoela, oinetan izozteak eragin zizkion mendi berean galdutako laguna agurtzetik itzuli da Bartzelonatik. Errespetu handia izateko mendia dela erakutsi omen dio K2-k, baina gustuko espedizio bat irtengo balitzaio, ez du hara bueltatzea baztertzen. Edurne Pasaban mendizale tolosarrak zorrotz hitz egin du aurrerantzean ere egin nahi duenari buruz.

Astebete barru egingo dizute ebakuntza. Uste baino arinagoak izan dira izozteak azkenean.

Oin bakoitzeko bigarren behatza moztu behar didate bigarren falangeraino, eta behatz handiko puska batzuk ere bai. Izozteak izan nituenetik aste batzuk pasatu dira, eta denbora horretan bere onera etorri dira gainerako behatz guztiak. **Merezi zuen K2-ko gailurrak?** Dударik gabe. **Zergatik?**

Han geundenean ikaragarri disfrutatu genuelako eta mendia gure bizitzeko modua delako. Inongo mendik ez du behatze ere merezi, baina ez naiz batere damutzen egindakoa. **Espedizio bat egiterakoan baldintzarik jartzen al duzu?** Bakarra: lagunekin edo kon-

«Bakardadea da mendiak duen alderik gogorrena»

Ekainerako goi mailako mendiren batean egon nahiko luke mendizale tolosarrak berriro: «Neguan, eskiatu egingo dut»

Mendizaleak oso ambiziosoa gara, eta batzutan erabakiak bat-batean hartu behar dira. Une horretan ez duzu arriskua ikusi ere egiten, eta alde horretatik zaila izaten da gauzak hotz-hotzean eta behar bezala baloratzea.

Al filo de lo imposible saioarekin joan zinen, eta gailurra jo. Zer da ezinezkoa?

Eskalada munduan zailtasun handiak daude, eta nik badakit horietako asko ezingo ditudala egin sekula. Zortzimilakoak nire haliabideen arabera prestatzen ditut; ez dut inoiz lortu ezin dudana helbururik jartzen. **Hamalau zortzimilakoak lortzera zoaz?**

Ez da horrekin obsesionatu behar, bestela, betebeharrak bihurtzen delako. Gogoaren arabera, zortzimilakoak egiten joango naiz, besterik gabe.

Espedizio bat egiterakoan baldintzarik jartzen al duzu? Bakarra: lagunekin edo kon-

fiantza dudana jendearekin joatea. Ziur egon behar dut zer edo zer pasatuz gero handik aterako nautela.

Mendizale askok kirol hori hautatzen du lehiakortasunik ez dagoelako. Zer diozu?

Egiten dugun kirolean ez luke zentzurik besteekiko lehiakor izateak, bizitza jartzen dugulako arriskuan. Nire buruarekiko oso lehiakorra naiz, hala ere.

Zer ematen du elurrezko garaierak amildegitik hain hurbil egon eta, hala ere, aurrera egin nahi izateko?

Ematen duena espedizioa bera da; zortzimilakoetatik gailurra lortu gabe bueltatu izan naiz etxera, eta oso beteta. Baina gailurrera igotzean bukatuta uzten duzu hasitako lana.

Eta bukatzean, zer?

Gailurrean bertan ez gara hamar minutu baino egoten. Hara heltzeko zorian zaudeneko, gailurra pare-parean ikusten duzuneko, izaten da politena.

Ez al zaio garrantzia handiegia ematen igoerari?

Agian bai. Mendizaleok dugun indar guztia xahutzen dugu igoeran, gailurrera heltzeko. Baina kontuan hartu behar da jaitsi egin behar dela handik; indarra bukaeraino gordezten ikasi behar da horregatik. **Zer jakin behar da zortzimilakoak egiteko?**

Dakitenetatik ikasten eta umila izaten. Juanito, Alberto... nik oso jende ona izan dut ondoan, eta horretarako gaude: haiek erakusteko eta gu ikasteko.

Oinarrizko kanpamentuan zaudenean, zertan pentsatzen duzu?

Lagunak, lana, familia... Oso urrun sentitzen naiz maite dudana guztitik, eta bertan egoteak merezi ote duen galdetzen diot neure buruari. Denbora hil asko dago mendian, eta esan dezaket bakardadea dela mendiak duen alderik gogorrena. **Baldintzak ere gogorrak izateko?**

IRITZIA ▶ SUSANA TXAPARTEGI (PSIKOLOGO INFANTILA, FAMILIAKO TERAPEUTA)

Ikasturte berriaren aurrean

Hasi berria da ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan eta ikasle, irakasle eta guraso batzuk arazo bereziak izaten dituzte hasiera hauetan. Ikastaroan zehar ere arazo ugari izaten dira ikastetxeetako komunitatearen barruan. Psikologok arazo horiei konponbidea bilatzen laguntzeko gaude eta horretan ari gara. Tolosan, adibidez ikastetxe guztiekin ari gara lanean Udalaren bitartez.

Irakasle askok kurtso hasieran izaten duten larritasun arruntena nor topatuko ote duen izaten da, arazoak dituzten ikasleak izan eta horiei nola lagundu ez jakitea. Irakasleentzako formakuntza ematen dugu, arazo arruntenak ezagutu eta konpontzen nola lagundu jakin dezaten, adin bakoitzean ohiko diren arazoaren aurrean zer den egokiena jakin dezaten.

Ikasle batzuk, batez ere txikiak, ikastetxearekiko egokitze arazoak izaten dituzte hasieran. Gurasoengandik ez dute banandu nahi izaten. Kasu batzuetan etxean ez dituzten mugen eta arauen arazoa izaten dute eta horregatik ez dira ikastetxera ohitzen. Gero eta kasu gehiagotan egokitze epe bat jar-

tzen da kurtso hasieran: lehen egunetan gurasoekin batera egotea ikasgelan, ordutegi laburragoekin hastea... Hasiara naturalagoa da, ez hain traumatikoa eta asko errazten du egokitze hori.

Adinean aurrerago, arreta eta kontzentrazio arazoak izaten dira, hasieran eta urtean zehar. Hiperaktibitate eta dislexia arazoak oso ohikoak dira. Portaera arazoak ere normalagoak izaten dira. Ikasle horiek dituzten arazo familiarak eta pertsonalak eskolan islatzen dira eta modu desberdinetara azaltzen dira: batzuk kanpora ateratzen dute portaera agresiboan bidez (jotzea, gauzak haustea, hozka egitea...) eta beste batzuk barneratu egiten dituzte. Azken kasu hauetan sozializazio zailtasunak ageri dira, harremanak izateko oztopoak. Bi kasuetan eskolarekiko egokitzea txarra izaten da. Kasu hauekin eskola bakoitzak egiten duenaren arabera, neraberrazora hobeto edo okerrago iristen dira neska-mutilak. Arazo garrantzitsuenak mantentzen badira, ikasteko motibazio falta izaten dute. Laguntza eskatzeko deiak izaten dira.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan normalean irakasleak asko inplika-

tzen dira ikasleen arazoetan. Bigarren Hezkuntzan zailagoa izaten da eta eza-gupen gutxiago izaten dute orokorrean. Aholkularitza behar izaten dute irakasleek: beharra duten gurasoekin eta familiekin nola hitz egin, zer egin...

Orokorrean, ikastetxeetako orientazio taldeetan oso ondo egiten dute lana. Gero eta formakuntza gehiago ematen zaie irakasleei, haurren psikologiaz gero eta gehiago dakite. Beharbada, prebentzio ezan ikusten dut hutsunerik handiena, arazoak antzemateko orduan. Aurretik ezagututa, arazo asko ebitatuko lirakeke, berandu izan baino lehen. Prebentziaroko formazioa falta zaie irakasleei.

6-12 urteko etapa haurrentzat garai ona izaten da, ikasteko motibatuta egoten dira, gustura joaten dira eskolara, lagunekin egoteko gogo handia izaten dute. Nerabazarora iristen direnean motibazioa asko jaisten da. Tituluak lortzeko motibazioa bakarrik izaten dute batzuk. Helburu batzuk dituztenek motibazio hori mantendu egiten dute. Komenigarria da helburu horiek jartzea, bestela ikasteko gogo galtzen joaten dira. Bigarren Hezkuntzan ikasgai asko

izaten dituzte, batzuk motibagarriak, besteak ez. Horrek estatusuna sortzen die gaztetxoiei eta gurasoei. Klase partikularretara jotzen dute laguntza bila.

Gurasoei ere, ikasturte hasierak eguneroko bizitza egituratzen asko laguntzen die: haurrek eta gurasoek ordutegietan orden bat behar dute. Egunen ordena aurririkustek egonkortasuna ematen die: jateko orduak, lotarako, telebista ikusteko... Eskolak jartzen duen ordutegiaren muga ondo etortzen zaie.

Horrekin batera, bere seme-alabekin gehiago egoteko eta jolasteko esango nieke gurasoei. Ikasleek gero eta etxeko lan eta eskolaz kanpoko aktibitate gehiago izaten dituzte eta jolasteko denbora gutxiago dute. Espontea deneko gero eta denbora gutxiago dute. Horrek eragina du ikasleengan eta estresa sortzen die.

Bestalde familiak gero eta gehiago inplikatu dira ikastetxetan bizitzan, gero eta gehiago laguntzen dute eskolan. Denen helburu bera den artean garatzea lagungarria da. Eskola eta familia bi kompartimentu estanko izatea ez da komenigarria. Funtzioak elkar osatzea ona izaten da, hezkuntza prozesuaren jarraipena egitea. Alde horretatik, guraso elkarteek eskola bizitzan integratzen funtzio egokia egiten dute.

PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1973ko abuztuaren 1ean ▶ Ingenieritza teknikoa ikasi zuen, baina ez du ingeniari gisa lan egin nahi ▶ Abeletzeko arduradun; lana mendiarekin uztartzeko aukera du ▶ Kanpoan ez dagoenean etxean egotea gustatzen zaio ▶ Irakurtzen edo...

Mendirik politena? Euskal Herriko edozein; adibidez, Txindoki. Altxotik pare-parean ikusten da. **Mendizale bat?** Bakoitzak bere ezaugarriak ditu. **Tolosa...** Jaio eta bizi izan naizen lekua. Herri txikia da, eta elkar ezagutzeko aukera ematen du oraindik. Harro nago tolosarra izateaz. **Hurrena, nora?** Pakistango Nanga Parbatera.

ZORTZIMILAKOAK

«Gailurra jo gabe itzuli izan naiz etxera, eta oso beteta, baina gailurra lortzean amaituta uzten duzu hasitako lana»



ten dira. Horrek ez al du espediziokideen egoera mikazten?

Mendian edozer gauzarekin pasatzen duzu ondo, eta, era berean, edozer gauzak haserazten zaitu.

Atzera begiratu. Nola oroitzen duzu lehen zortzimilakorra egin zenuen espedizioa?

Beldur nintzela gogoratzen dut. Berria zen dena niretzat, eta konturatzen naiz ez nekiela deus orduan. Orain barregura ematen dit.

Eta orain, zeri diozu beldur?

Bizitzan hartzen ditudan era-

bakiak ondo hartzen ote ditudan; horrek ematen dit beldurra, batez ere erabaki bat hartzeak gauza batzuei uko egitea dakarrenean.

Mendia hautatzean, ez diozu ezeri uko egin behar izan?

Bai; hori da benetan egin nahi dudana, ordea. Baina ez bizimodu gisa, ez nukelako mendiaz bizi nahiko. Uste dut horrez gain gauza pila bat daudela bizitzan egiteko.

Aurrerantzean, zer asmo?

Neguan eskiatzera joango naiz eta ekainerako goi mailako mendietan izatea espero dut.

IGERIKETA ▶

LEIRE MONTES

Hiru igeriketa talde izan ordez, bakarrak ordezkatu du Tolosa hemendik aurrera. Izan ere, Tolosa CF Igeriketa, Igarondo Igeriketa, eta Igarondo Urpekoak taldeek bat egin dute: Tolosaldea Igeri Kirol Taldean ariko dira orain guztiak. Hiru taldetako zenbait kiderekin elkartu da HITZA, eta «pozik eta gogotsu» agertu dira guztiak.

Haien esanetan, herriko taldeek bat egitearena ez da berria. Baina azkeneko hilabeteotan joan da ideia benetako itxura hartzen. Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik jarrera beretsua sumatzen dela diote: «Badirudi taldeak gutxitzearen eta instalazio berak erabiltzen dituzten taldeak bateratzearen alde daudela».

Udaleko Kirol Batzordetik, hain zuzen ere, jaso zuten herriko taldeek elkartzeko proposamena. Usabalen egingo den kirolguneak ere eragina izan zuen Udalaren proposamenean eta taldeen erabakietan. Uztailaren erdialdean bildu ziren guztiak udaletxean, egoera aztertzeko. Ondoren, talde bakoitzaren barruan erabakia eztabaidatzeari ekin zioten; azkenean, hirurak bat egitearen alde agertu ziren.

Lanari ekin zioten berehala, Tolosaldea Igeri Kirol Taldea denboraldi honetan bertan hasiko baita lehiatzen txapelketatan. Datorren urteko udarako —Usabalgo igerilekuak 2005eko ekainerako eraikituta egongo direla aurreikusten du proiektuak— talde berria erabat egituraturik izatea espero dute guztiak.

«Herriak irabazi egingo du»

«Guztiontzako aberasgarri eta mesedegarri izango delako» erabaki zuten taldeekideek bat egitea. Haien esanetan, «abantaila asko ekarriko ditu elkartzeak, eta ona da bai guretzako baita herriarentzako ere».

«Taldea handiagoa izango gara, baliabide gehiago izango ditugu, maila igo egingo da, igerilariak elkar ezagutzeko aukera izango dute... Gure ustez, igerilariak izango dira lehenak bat egitearen abantailak jasotzen», azaldu dute kideek. Albisteak jaso berri dute gurasoek eta igerilariak: Urpekoak-ekoek joan den astean egin zu-

Herriko igeriketa taldeak, bat

Tolosa CF Igeriketa, Igarondo Igeriketa eta Igarondo Urpekoak taldeek bat egin dute; talde berrian ariko dira orain guztiak: Tolosaldea Igeri Kirol Taldean

ten bilera, Igarondo-koak asteazkenean elkartu ziren, eta Tolosa CF-koak atzo.

Jendearen iritzia jasotzeko ez dute ia astirik izan, baina berria ondo hartu dutela uste dute ordezkariak: «Hasieran harrিতa begiraten dizute guztiak. Eta normala iruditzen zaigu; hainbeste urtetan era batera funtzionatu dugu, eta gutxien espero genuenean iritsi da erabakia. Pentsatzen dugu, gainera, segituan jabetzen direla abantailaz. Denok nahi dugu hobetzea, eta horrela lortuko dugulakoan gaude».

Kirol arloan ere «hobekuntza handia» egongo dela gaineratu dute taldeekideek: «Taldea guztiak, bakoitzak bere aldetik, maila handia gurela erakutsi dugu behin eta berriro orain arte: maila askotan Euskadiko txapelketa dezente irabazi ditugu, Gipuzkoan ere bai... Eta orain, hirurok batera gaude, are hobea izango da. Hemezortzi mila biztanle inguru dituen herri batentzat maila bikaina da. Tolosak irabazi egingo duela uste dugu. Orain arte bezala eta hobeto ariko gara hemendik aurrera ere».

200 igerilari baino gehiago

Guztira, 200 igerilari baino gehiagok osatuko dute Tolosaldea Igeri Kirol Taldea. «Hemendik 2-3 urtera 250 lagunetik gora izatea espero dugu». Helburua, gainera, herrian soilik ez geratzea da: «Izenak ere horixe islatzen du. Eskualdeko taldea izateko xedearekin jaino gara, eta Tolosaldeko jende guztiak har dezake parte proiektu honetan». Aste honetan bertan probak deitu dituzte, eta Tolosakoentzako ez ezik eskualdeko beste herrietako jendearentzako ere badira.

Formakuntza horri garrantzi handia ematen diote hirurak taldeetako ordezkariak: «Orain arte bezala, aurrerantzean ere igeriketa eskola oso garrantzitsua izango da guretzat. Eskolak ona izan behar du. Azken finean, hori baita gure harrobia».



Tolosa CF Igeriketa taldeko zenbait igerilari eta entrenatzaileak. HITZA



Igarondo Igeriketa Taldeko igerilari batzuk. HITZA



Igarondo Urpekoak taldeko kideak, Mallorcan, txapelketa batean. HITZA

HIRU TALDEAK ▶

60. hamarkadan bazegoen, jada, igeriketa talderik herrian. Hegats igeriketako 80. hamarkadan eratu zen.

Tolosa CF. 1965. urtean jaino zen, Berazubiko igerilekua egitearekin batera.
Igarondo Igeriketa. 1968. urtean sortu zen. Hau ere, igerilekua egin zutenean; Igarondokoa, hain zuzen ere.
Igarondo Urpekoak. 1981. urtean eratu zen, Igarondo taldearen egituraren barruan. Ondoren, 1996an, jaino zen Igarondo Urpekoak.

IZEN-EMATEAK ▶

Tolosaldea Igeri Kirol Taldeak deialdia egin die herriko eta eskualdeko haur eta gazteei. Datozen egunotan mailak zahazteko probak egingo ditu taldean aritu nahi duenarentzat. Hauexek dira hitzorduak:

IGERIKETA

Asteartean eta asteazkenean. Aste honetarako prestatu ditu maila probak: asteartean eta asteazkenean, hilaren 14a eta 15a, izango dira, Igarondo igerilekuan, 17:15etik 18:00etara. 6 urtetik aurrerakoentzat daude zuzenduta. Interesa duenak egun eta ordu horietan igerilekuan agertu besterik ez du. Informazio gehiagorako Igarondora dei daiteke: 943 67 20 16.

HEGATS IGERIKETA

Ostiralero. Hegats igeriketan aritu nahi duenak ostiralero du kirol hori hobeto ezagutu eta probatzeko aukera. 12 urtetik gora izatea beharrezkoa da. Interesa izanez gero, edozein ostiraletan Igarondon agertu besterik ez dago.



www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ERAKUSKETA ▶

Errepikapenen konbinazioa

Miren Gonzalez margolari tolosarrak lehenengo aldiz egiten du erakusketa bat herrian; garatzen ari den tesiari jarraituz, errepikapena eta konbinazioa uztartu ditu bere azken lanak sortzeko

IMANOL GARCIA

Bere lanak jaioterrian aurkezteko unea iritsi zaio Miren Gonzalez Goikoetxeari. Artista tolosarraren *Puzzleak* erakusketa Aranburu Jauregian ikusgai dago urriaren 9a bitartean. Ingurukoek animatzen bazuten ere, bere lanean nahiko segurtasun izan arte ez zuen erakusketarik egin nahi herrian. «Orain ikerketa batean murgilduta nago, logika dauka eta emaitzak asko aldatu dira», azaltzen du Miren Gonzalezek. Horregatik Tolosan bere lanak erakusteko aukeran pentsatzen hasi zen: «Aranburu Jauregia beti gustatu izan zait, lau sala txiki eta beste bi handirekin, ibilbide baten itxura du. Erakustokiak askotan karra tuak izaten dira, koadro guztiak jarraian doaz eta batera ikusten dituzu, nahasketa sortu dezaketelarik. Hemen ez, koadro bat edo bi daude sala bakoitzean eta hori gustatzen zait».

Pentsatu eta ekin. Jokin Ansorena kultur teknikariarekin jarri zen harremanetan eta honi «asko gustatu zitzaion erakutsi niona. Harritu egin zen, ez ninduelako ezagutzen eta erakusketa bat martxan jarri behar zela esan zuen». Tolosa eta Iruñearen artean akordioa dago erakusketak antolatu eta gero batera eta bestera eramateko. Elkarlan honek katalogo bat sortzeko aukera ere ematen du eta «hori oso garrantzitsua da niretzat, nire lana galerietan eta beste leku batzuetan aurkezteko aukera ematen didalako», azaltzen du margolari tolosarrak.

Orain arte erakusketak izandako harreraz oso gustura dago: «Jendeak eskatu dit lana azaltzeko, interes bat ikusi diotelako eta horrek sekulako poztasuna sortu dit».

Ikerketaren emaitza

Bakarkako bere hirugarren erakusketa da hau. Aurreko biak galerietan izan dira, Bartzelonan eta Reusen, hain zu-



Aranburu Jauregian duen erakusketako koadroetako bat eta bi ikusle hari begira. I. GARCIA



Miren Gonzalez bere koadro baten ondoan. I. GARCIA

zen. Azken urteotan egiten ari den ikerketa teoriko-praktikoaren emaitzetako batzuk dira Aranburun ikusi daitezkeen margolanak. «Ideia praktikatik aterata da, hau da, errepikapena eta konbinaketa lantzea. Alde teorikoa eta praktikoa batera doaz, eta horregatik iruditzen zait tesia interesgarria dela». Praktikan lantzen duena zerkusia dauka mekanikotasuna eta eskulanarekin: «Errepikapena oso mekanikoa da, baina eskuz egiten dut eta gero konbinatu egiten dira».

Konbinaketek koadro irekiak sortarazten ditu, izan ere, margolan bakoitza koadro txikiez osatuta baitago eta horien arteko konbinaketak aldatuz margolanak beste itxura bat hartu dezake. Esaterako, «Iruñean egingo den erakusketa Tolosakoaren ezberdina izango da, beste modu batera konbinatuko baitituz koadroak».

Buru-belarri dabil bere tesia lantzen eta oso metodikoki ari-tzen da, «lau ordu ikasten eta bost-sei ordu pintatzen, eta horrela jarraitu beharra dut, bes-

tela oso erraza delako uztea». Batzuetan desilusio puntu bat izan dezake artistaren bizimoduak, «oso zaila baita saltzea; galerietan erakusketak egitea ere zaila da, beti daudelako bi urtetarako listak; gainera, lanak erakusten dituzunerako agian beste proiektu edo pausu batean zaude», azaltzen du margolariari.

Margoketa gustura egiten du, baina gero aitortzen du salmentan ez dela trebea «eta egia esan, negozio mundu hori ez zait gustatzen. Tailer bat izan nahi nuke eta hor lanean aritzea eta beste pertsona bat arduratzea salmentaz. Baina hori guztia gertatzea oso zaila da» azaltzen du Gonzalezek.

Buenos Airesera

Hamabi urte daramatza Miren Gonzalezek arteari estuki lotuta, bai ikasten eta bai sortzen. Ikasketak Londresen, Cuencan eta Bilbon egin ditu, eta ikerketa lanak Bilbao Arten eta, gaur egun, Donostiako Artelekun. Bertan, «alokairu baxu baten-gatik tailer bat uzten dizute eta instalazioak eskaintzen dizkizun liburutegia, ordenagailuak eta bestelako medioak erabili ditzakezu. Eta gehienbat, artisten giroa dago: ekitaldiak, tailerak, hitzaldiak... Alde horretatik oso ondo dago Arteleku», dio margolariari.

Aurki, Argentina aldera doa, Buenos Airesera, lau hilabete-rarako. «Orain aukera dut ikas-teko han edo hemen. Beraz, zergatik ez mugitu? Aurretik hiru hilabete egon naiz Thailandian. Han nengoela ez nuen pentsatzen asko aldatzen ari nintzela kolorez edo konposizioan, baina hona bueltatu naizenez eta hango marrazkiak lantzen hasi naizenez aldaketa handiak ikusi ditut, kolorearen aldetik, nire animoaren aldetik... Oso positiboa irudituz zait».

Buenos Airesen tesiarekin jarraituko du, Thailandiako oparotasunetik urrutu, hiri handi batek eskaintzen duen esperientzia bizitzera.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

ALEGIA ▶

Herriko abesbatzak lanean hastear

Alegiako Txintxarri txiki eta Txintxarri abesbatzek laster ekingo diote ikasturte berriari. Helduenk entseguak irailaren 14an 21:00etan hasiko dituzte Kultur Etxean. Txikiak, berriz, irailaren 16an hasiko dira 18:00etan Kultur Etxeko areto nagusian. Bestalde, Txintxarri abesbatza kultur elkarteak bi emanaldi iragarri ditu urrirako: bata Tarragonako Cor Ciutat abesbatzaren emanaldia urriaren 9an Alegiako elizan, eta bestea, Txintxarri egunean, urriaren 24an Alegiako elizan; Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek emanaldi berezia eskainiko dute egun horretan.

ALEGIA ▶

Babarrun-jaterako txartelak salgai dira

Irailaren 19an izango da Lan-gaurre Egunean egiten den babarrun-jatea Alegian eta antolatzaileek txartelak salgai jarri dituztela jakinarazi dute. Txartel hauek eskuratzeko, helduek zortzi euro ordaindu behar dituzte eta hamabi urte bitarteko haurrek, berriz, bost euro. Kultur Etxera joan behar da txartelak erostera, goizeko 09:00-etatik 12:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 21:00-etara irailaren 17a izango delarik azken eguna.



TOLOSA ▶ KULTURA

Kultur Astea atzotik aurrera La Jaran

Datorren iganderarte luzatuko da; hasteko, karta jokoan aritu ziren atzo; gaurtik aurrera, erakusketa dago zabalik

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo hasi zen La Jara Extremadurako zentroaren Kultur Astea. Arratsaldean izan zen, hain zuzen ere mahai jokoekin aste honi hasiera eman zion ekitaldia. Ondoren, urtero egiten duten bezala, Guadalupeko Ama Birjinari lore eskaintza egin zioten eta hau amaitu ostean *lunch*-a izan zen bertaratu ziren guztientzat.

Gaurkoan, berriz, eskulanean erakusketa zabalduko dute goizean La Jara zentroan bertan, eta aste osoan zehar zabal-

durik izango da gerturatzen den jende guztientzat.

Festarekin ere aste osoan zehar jarraituko dute elkarteok; aipatzekoak dira asteartean egingo duten olerki emanaldia Erreinteriako, Donostiako eta Tolosako zentroetako hainbat kidek parte hartuko dutelarik, eta bestelakoan, jokoak, lehiaketak, hitzaldiak eta afariak izango dira besteak beste aste honetan. Datorren igandean izango den Andoingo Triana dantza taldearen emanaldiarekin emango diote amaiera aurtengo Kultur Asteari.

Zaldiaren trebatze naturala

TOLOSA ▶ Chico Ramirez mexikarraren zaldi erakusketaz gozatzeko aukera izan zen atzo eta gaur goizean, 11:00etatik 14:00etara zezen-plazan. Zaldiak era naturalean nola trebatzen diren azaltzen du mexikarrak teknika desberdinak aplikatuz, animalia hauen hezitzaile edo zale direnentzat bereziki, zita polita delarik. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Nobedade eta eskaintza ugari izan zen atzoko azokan

Babarrun gorriaren aurkezpena izan zen eta perretxikoetan, berriz, aukera zabala

PABLO ALBERDI

Udazkena iristen ari dela nabaritzen ari gara azokan. Eskaintza aste batetik bestera handitzen ari da, eta atzo nobedade asko aurkeztu ziren. Barazkien artean, babarrun gorriaren aurkezpena izan zen aipatzekoa. 12 eurotan saldu zen, eta potxa eta babarrun zuriarekin, oso eskaintza zabala bete zuten.

Perretxiko zerrenda ere asko zabaldu zen. Onddoez gain, ziza horik, nikaloak, mendiko angulak, senderuela, eta *Chantaerellus tubiformes* ikusi ahal izan genuen. Preziok ez ziren asko aldatu. Onddoea 10 eurotik 20ra saldu zen eta besteak 14tan.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Hurra	3,00	4,00
Arana	15,00	-
Zainzuria	15,00	-
Kiwiak	4,00	-
Arraultzak	1,30	2,10

Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Patata	1,52	-
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,53
Arbi morea	3,97	-

Berdura plaza

Lilila	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Txilarra	4,50	-
Krisantemo	4,80	-
Pensamientoa	1,00	-

Andoainen dagoen enpresa batean lan egiteko
ADMINISTRATZAILEA behar da (erref. Admin)

Eskatzen da:

- Enpresa Zientzietako diploma izatea edo L.H. II-ko titulua, administrazio arlokoa.
- Kontabilitate arloa ongi ezagutzea.
- Programa informatikoak erabiltzen jakitea (EXCEL, ACCESS...).
- Administrazio lanetan gutxienez 2 urteko esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna edukitzea.

Eskaintzen da:

Enpresa talde sendo batean administrazio buruaren ardurapean lan egitea. Administrazio eremuan lan egiteko aukera: kontabilitatea, zergak, barne ikuskaritza...

Interesa dutenek gaur egungo curriculum bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, edo beste helbide honetara, erreferentzia zahazturik, irailaren 16a baino lehen.

Helbidea: JARDUNA SL • Giza Baliabideak • Gudarien Etorbidea • 20140 Andoain

Helduen Heziketa Iraunkorra
E.P.A - H.H.I.

2004-2005erako Matrikula Irekia, irailaren 6tik aurrera

- DBH Graduata
- Hizkuntzak, Informatika, Internet
- Unibertsitateko sarrera 25 urtetik gorakoentzat
- Etorkinentzako gaztelaniazko ikastaroak
- Oinarriko ezagueretan sakontzea

Eta gainera... Hitzaldiak, kultur irteerak, eskulanak, egur-talla... Eta ikasleen Elkarteak antolatuta: Yoga.

Ikastetxe ofiziala (Eusko Jaurlaritzakoa) eta doakoa da.

Igaralde kalea, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 26 60
Errebotte plaza • VILLABONA • Tel.: 943 69 03 12

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak. Eusko Jaurlaritzan eta udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informazioa doan 943 65 01 93. **Gidariak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udal ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa zaituz

eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Liburutegiak, harreragileak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta Foru Aldundian.

Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira. **Laborategiko teknikari, laguntzaileak.** Ur deputatzaileen kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Ezinduak. Erreserbatutako lanpostu finkoak.** Gutxienez %33ko

ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 650193. **Basozaina.** 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93. **Udaltzaingoa.** Lanpostu libreak udaletxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

ZIZURKIL/ALKIZA/BEDAIO ▶ JAIAK

Eskualdeko herrietan jaien azken txanpari ekingo diote gaur

Atzo, hiru herrietan ere, umeak izan ziren jaietako nagusi, bakoitzean hori bai, beren ezaugarriak mantenduz



Alkizan erakutsi zuten badagoela txirringularitzarako harrobirik. J. A.



Zizurkilaren guztiek izan zuten parte hartzeko bidea. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Hiru leku, hiru izaera, hiru herri, baina hirurak ere jaietan daude eta, asteazkenean hasitako festa egunek, gaur izango dute amaiera. Baina hori gauean gertatuko da eta oraindik ere egun bete bete dago, inda-

rrak hartu eta egin gabeko horiek burutzeko.

Atzoko egunari begiraturaz, berriz, badirudi hiru herri hauetan ados jarri zirela, izan ere hirurak hala hiruetan, umeak izan ziren jai egun horren jabe, nahiz eta ekitaldi desberdinak izan aukeran. Zizurkilaren

esaterako, larunbata zela kontutan hartuta, goiz-goizetik hasi eta eguerdia pasatxo arte, nahiko jolas, ariketa, eskulan egiteko bidea izan zuten herriko plazako aterpean, Sebastopoloko Titiriteroen eskutik.

Titiriteroak

Ume asko bildu zen bertan, guraso mordoska ere bai, eta begiraleen laguntzarekin gogoak agindu ahala, nahi zutenen aritu ziren. Kozkorrentsuenek arku tiraketan punteria frogatu zuten eta ehizako denboraldia ere gerturazten ari delako edo, aita batzuk ere egin zuten beren saiakera. Besteek, txapak egiten, elastikoetan saltoka, gaztelu puzkarrietan jolasean, bola handi batzuen gainean oreka lantzen eta futbolinean igaro zuten goiza. Eta herriko txikientzat gustukoen izan zena, agian, xaboizko ponpak egin eta hauen atzetik ibiltzea izan zen, edo saiatzea behintzat.

Edozein moduz, goiza ederki asko bota zuten, ez zuten aspertzeko aitzakiarik izan eta arratsaldeko ekitaldietarako ez ezik, gaurko *quads*-ekin ibiltzeko indarrak gorde zituzten.

Jolasetik kirolera jauzi eginenez, Alkizan, txirringulari laisterketa burutu zuten eta ez no-

lanahikoa gainera, parte-hartzeari dagokionez behinik behin. Han bertan Hrtzari adierazi ziotenez, herrian gazteen artean aspaldiko ohiturazkoa zen laisterketa omen zen eta duela urte batzuk umeekin berreskuratu dutena. Eta egiaztatu ahal izan zenez, halaxe esan daiteke, Setik 12 urte bitarteko 27 ume parte hartu baitzuten, eta 4 urtez beheko beste hiru haurrek, guztiak ere Alkiza bertakoak edota familiak herrikoak direnak.

Antolakuntzan, gurasoak aritu ziren eta parte-hartzaileek egin beharreko ibilbidea herrian zeharrekoa zen, bana-banaka ateraz. Adin tarteka, bi txandetan denborarik hoberena egin zutenen sariak ere banatu zizkieten. Ondoren tokan aritzekoak ziren. Bertako zenbaitek erdi serio «etorkizuneko txirringulariak hementxe izanen ditugu», zioten. Saiatu faltagatik ez da izango!

Herri jolasak

Eta Bedaion ere, eguneko festa ekitaldierri hasiera emateko umeekin jolasak egin zituzten, baina kasu honetan herri-jolasak: globo lehertzea, zaku salto, goilarea eta arraultza (pilota erabili zuten), toka... Guztiak ere gure hemengo ohiko jokak. Hori bai sariak ere banatu zituzten eta ondoren arratsaldekoa, txokolata eta bizkotxoarekin. Herriko umeak ez ezik, inguruetako herrietakoak ere bertaratu ziren eta «inor ez da saririk gabe geratzen», zioten antolatzaileek. Edozein moduz, goiz samar bukatzeko asmoa zuten, gauean, pilota lekuan bertan, herri afaria egitekoak baitziren.

Herri bakoitzak bere ñabardurekin, baina denak festa giroa jaun eta jabe.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z. 65 32 12

Ibarraldea. Osasun etx: 672411

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, J. M. J. Iraola,

10 (Tolosa). 943 67 24 38

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldeko. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ETXEBIZITZAK

Anoeta. Hiru logelako etxebizitza salgai. 207.000 euro. 630 030 149.

Tolosa. Pisua salgai Korreo kalean. Egongela, sukaldea, bi logela eta komuna. Berrituta, estreinatzeko. 615 013 762.

OTEGI Promozioa eta eraikuntzak
eraikuntzak, s.l.
Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa:943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROA
Antolatzailea: Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak
• **Hasiera:** 2004ko urriaren 4an • **Ordutegia:** 2 aukera: 16:45 - 18:45 / 19:00 - 21:00
• **Amalera:** 2005eko ekainaren 1go astean • **Non:** Inmaculada Ikastetxea (Kondeko aldapa 5, b / TOLOSA)
• **Egunak:** asteartea eta ostegunetan
Argibideak: Tlf.: 943 67 36 29 • **Idazkaritza ordutegia:** 8:30 -14:00 / 15:30 - 18:00
Oharra: Loritutako ziurtagiriak Madrilgo CNSeren baliozkotasuna izango du (bere barne Euskadiko Pertsona Gorren Federazioa)

ZIZURKILGO UDALA
Gora Zizurkilgo jaiak!
Zorionak eta ondo pasal!
Tel.: 943 69 10 12 • Teodoro Herrandonea, 6 • 20159 Zizurkil
www.zizurkil.com

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Jubilatuen astea: txistularien diana 8:00etan; meza 12:00etan; trikiritxa eta dantza 13:00etan; bazkaria 14:00etan; dantzaldia eta 19:30ean jaien amaiera.
Tolosa. Zaldiaren erabilpen naturalaren erakusketa. Zezen-plaza, 11:00-14:00.

JAIAK

Alkiza. 10:00, meza; 10:15, Gazteen arteko XIV. Pilota Txapelketako finalak; 16:00, Pitxoi Tiraketa; 18:30, Xukan taldea; gauean, Epelde eta Larrañagarekin erromeria.
Bedaio. 10:00, suzirriak; 11:00, meza; 12:00, hamaiketakoak; 13:00, XV. Txirindulari Igoera; 18:00, herri kirolak; ondoren, *Ingurutxo* dantzatzuko dute eta *Arratiako jota*; gauean, Mirari eta Elenarekin trikiritxa **Zizurkil.** 11:00, IV. Kros Herrikoa; 12:00, Bakailao Lehiaketa; ondoren, lore lehiaketa; 16:30, buruhandiak; 17:30, *Acroquads* erakustaldia; 19:00, pultsulariak; 23:00, kontzertua: Loatzo musika eskolako taldeak eta Nekin.

ZINEMA

Tolosa. *El rey Arturo.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar, 19:30, 22:30.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maren Barriola Lasa. Bihar urtebete. Engainatuko dituzu zuk, bai, ebekoak. Muxu bi.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzelara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA

Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri,
Mila esker!



URTE ASKOAN
Javier Dorrnsoro
(Bidania). Zorionak, aitabok!
Asko maite zaitugu.



ZORIONAK.
AMONA PILAR
Muxu handi bat familiaren partetik,
berezi ki Xabat, Beñat eta Ametz.



URTE ASKOAN
Eukene Larrarte (Tolosa).
Bihar 6 urte. Muxu handi bat
familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Oier Saldias Mujika
(Anoeta). Gaur 3 urte.
Zorionak eteko guztien partetik.



URTE ASKOAN
Nerea Diaz Melero (Tolosa).
Bihar 5 urte. Zorionak eta ondo
pasa, aitona-amonen partetik.

Bosgarren 'Hitza'

GOIERRI ▶ Atzo banatu zuten eskualdeko 22 herrietan 0 zenbakia, eta urriaren hasieran argitaratuko dute 1.a

MAITE SARRIEGI / BEASAIN

Tolosaldean eta Leizaldean badago bertako Hrtza euskarazko egunkaria, Oarsoaldean ere bai, Lea-Artibai eta Mutrikun ere bai, Urola-Kostan ere bai, eta urri hasiera aldetik Goierri ere izango da. Bosgarren *Hitza*, beraz. Herri-tarrek egunkaria nolako izango den jakiteko, proiektuaren sustatzaileek atzo 0 zenbakia banatu zuten, eskualde osoan. Aipatutako beste eskualdeetan bezala, herri aldiakarien euskara elkarteek, gizarte eragileen eta Bertako Hedabideen (EKTkoa) artean sortu dute *Goierriko Hitza*. Elkarteetan artean, Goierriarra eta Zintzo Mintzo daude —azken hori Urretxu eta Zumarragakoa—; eta Legazpin, berriz, *Hitza*ren aldeko taldea sortu dute. Hasieratik bertatik zazpi gizarte eragile ere badaude; dena dela, *Hitza*ren alde dagoen edozein elkarrek, ikastetxeek, enpresak... izango du hurrengo asteetan enpresan parte hartzeko aukerarik.

Animatuta daude sustatzaileak, «eta guk uste Goierri egunero 9.000 aleko tiradara hel gaitzkeela». TOLOSALDEKO



Herriar batzuk atzo kalean, *Goierriko Hitza* eskuartean dutela. GOIERRITARRA

ETA LEITZALDEKO HITZAK egunero 7.500 ale banatzen ditu, Oarsoaldekoak 5.900, Lea-Artibai eta Mutrikukoak 5.300, eta Urola-Kostakoak 7.000 —lehenago otsailean sortu zen—.

Goierri prentsan herri informazioa egunero euskaraz ematean dagoen hutsunea betetzera dator *Hitza*. «Garrantzitsua da prentsan euskarazko komunikabideek erreferentzialtasuna lortzea. Eta horrek euskararen normalizazioari mesede egingo dio, egunero milaka eta milaka herritar ja-

riko direlako euskaraz irakurtzen».

Zortzi orrialde edukiko ditu *Hitza* —batzuetan hamabi ere bai—, eta Ataun, Beasain, Zegama, Zerain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia, Segura, Zaldibia, Arama, Altzaga, Mutiloa, Legorreta, Ormaiztegi, Urretxu, Zumarraga eta Legazpi berri emango du, asteartetik igandera. «Kalitatea dugu helburu, pluralak izango gara eta euskaltzaleak». Aimar Maiz gabi-

riarra izango da *Goierriko Hitza*ko zuzendaria.

Udalei biztanleko urtean hiru euroko diru laguntza eskatu diete. «Proiektu honek denon laguntza jaso behar du, besteak beste udalena, *Hitza* hasieratik sendotzeko». Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurerriatik laguntza jasoko dela espero dute, beste hitzek jasotzen dutelako.

Bosgarren *Hitza*, beraz, Goierri. Bertako Hedabideak, horrelako gehiagi sortzeko lanean ari da.